



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Eredua

1. zatia

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazioa

2
0
1
4
/
1
5

HIZKUNTZA GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

Jarraibideak

Proba honetan testu bat irakurriko duzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu. Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Ondoko 4 urtaroetatik, zein da hotzena?

- A Udaberria
- B Uda
- C Udazkena
- D Negua

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Ondoko 4 urtaroetatik, zein da hotzena?

- A Udaberria
- B Uda
- C Udazkena
- D Negua

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zeintzuk dira 4 urtaroak?

.....




Proba hau egiteko 45 minutu dituzu.

Esker onaren eroslea

Antzina, Txinako erresuma urrun batean, Mong izeneko ministro bat bizi zen. Behin, lan bila ari zen mutil gazte bat agertu zen haren jauregian.

- Zer egiten dakizu? –itaundu zion ministroak.
- Deus ez, jauna –gazteak erantzun-. Baina behar dena ikasiko dut.

Zintzoa naiz eta leialtasunez zerbitzatuko zaitut. Mongi gaztearen segurtasuna gustatu zitzaion eta lanerako hartzea erabaki zuen. Logela bat, arropa egokiak, janari aski eta soldata txiki bat eman ziezazkioten agindu zuen. Handik denbora batera, Sue izeneko urruneko herrixka baten berri iritsi zen jauregira. Hango herritarrek urteak zeramatzen zergak ordaindu gabe eta pilatutako zorra oso handia zen. Gainera, ministroak bidalitako hiru ordezkari handik ihes egin behar izan zuten herrixkako jendeak hiltzeko mehatxua egin zuelako.



- Zergatik ez didazu niri herrixkara joaten uzten? – erregutu zion zerbitzari gazteak ministroari.
- Oso eginkizun arriskutsua da –erantzun zion Mongek. Ohartzen zara zure bizitza arriskatuko duzula?
- Bai, jauna. Baina bada garaia nik zure eskuzabaltasunari behar bezala erantzuteko.

Mong ministroak gaztearen erreguei men egin zien eta behar zen guztia prestatzeko agindu zuen. Joan aurretik, mutila ministroaren aurrera agertu zen eta galdetu zion:

- Nahi duzu toki urrun hartatik zerbait ekartzea?
- Ez dut deusen beharrik. Baina, nahi baduzu, joan aurretik jauregian begiratu eta zerbait falta bazait ekarriazu hori.

Gazteak palazioan buelta bat eman zuen ministroari zer falta zitzaion ikusteko eta gero herrixkarantz abiatu zen.

Hara ailegatutakoan herritarrek mutur beltzez hartu zuten. Mutilak herritarrekin hitz egin zuen, zorrak aztertu zituen eta gero esan:

- Nire jaunak zor diozuen barkatzea erabaki du. Kargarik gabe zaudete orain.
- Zoriona lagun izan beza gure jaun bihotz-zabalak! –oihukatu zuten herritarrek.

Handik egun batzuetara gaztea jauregira itzuli zenean, ministroak bere aurrera deitu eta zorrak kobratu ote zituen itaundu zion.

- Bada... begira, jauna, –gazteak erantzun- jauregian begiratu ondoren ulertu

nuen gizon ikaragarri aberatsa zarela, baina bazegoela zuk ez zenuen zerbait: jendearen maitasuna eta esker ona. Horregatik, zorrak barkatzea eta trukean zuri opari hau ekartzea erabaki nuen: herri oso baten esker ona. Mong ministroak ez zuen jakin zer esan. Noski, mutilak arrazoi osoa zuen, baina bere erruz diru kopuru handia galdu zuen. Denen harridurarako, Mongek zerbitzari gazteari barkatzea eta gertatutako guztia ahaztea erabaki zuen.

Urteak igaro ziren eta, halako batean, inbasio izugarri bat izan zen. Mongek palaziotik alde egin eta ihesi joan behar izan zuen.

- Ez arduratu, jauna –esan zion zerbitzari gazteak-. Harrera ona egingen diguten toki batera joanen gara.

Eta mutilak Sue izeneko herrixkara eraman zuen Mong. Hara iritsi zirenean, herritarrek txalo artean egin zieten harrera.

- Ez dugu ahaztu gugatik egin zenuena –esan zuten herritarrek-.

Esker ona zor dizugu betiko, Mong jauna!

Eta horrela, Mong herrixka txiki hartan bizi ahal izan zen hil zen arte, hainbat urte lehenago bere zerbitzari gazteak egin zion opariari esker: herri oso baten maitasuna eta esker ona zuelako.

E. P. GATÓN eta I. HWANG-en *Milaka urteko Txinako ipuinak* liburuan oinarritua.

1. Ordena itzazu pasarte hauek istorioaren arabera (1etik 5era zenbatuz).

Gazteak bere burua eskaini zuen Sue herrixkara joateko

Gaztea Mongen aurrera agertu zen, lan eske

Gaztea Suetik itzuli zenean Mong harritu egin zen haren jokabidearekin

Mongek arazo bat zuen Sueko biztanleekin

Jauregitik ihesi joan zirenean, Mongi eta gazteari harrera ona egin zieten Suen

2. Zer zekien egiten Gazteak Mongen aurrean lan bila agertu zenean?

- A. Hiru ogibide baino gehiago ezagutzen zituen
- B. Esperientzia zuen beste ministro batzuen zerbitzari bezala
- C. Gudari gazte baten gauzak zekizkien
- D. Deus ere ez zekien egiten

3. Mongek zergatik utzi zion gazteari jauregian gelditzen?

.....

.....

.....

4. Zergatik iruditzen zitzaion ministroari arriskutsua zela Sue herrixkara joatea?

.....

.....

.....

5. Mutil gazteari ez zitzaion axola bere bizitza arriskatzea, zergatik?

- A. Seguru zegoelako ez zitzaiola deus gertatuko
- B. Mong ministroaren soldaduak berarekin joanen zirelako
- C. Bere alde egindakoa eskertzen ziolako ministroari
- D. Arriskuaz jabetzen ez zelako

6. Sue herrixkatik zer ekartzea nahi zuen galdetu zion gazteak ministroari, eta ministroak esan zion:

- A. Urrea eta harribitxiak ekartzeko
- B. Bere jauregian ez zuen zerbait ekartzeko
- C. Zor zioten dirua bakarrik ekartzeko
- D. Osasunez itzultzeko eta arriskuetatik libratzeko

7. Zer EZ zuen aurkitu gazteak Mongen palazioa kontuz begiratu zuenean?

.....
.....
.....

8. Hasieran, nola hartu zuten gaztea Sueko biztanleek?

- A. Inor ere ez zen konturatu herrixkara heldu zela
- B. Oso ongi, esker onez hartu zuten
- C. Ez ongi ez gaizki, hoztasunez hartu zuten
- D. Gaizki hartu zuten, mesfidantzaz

9. Gazteak zergatik barkatu zien zorra Sueko herritarrei?

.....
.....
.....

10. Zorra ordaindu beharrik ez zutela izanen jakin zutenean nola sentitu ziren adierazten duen testuko esaldi bat aukeratu eta hitzez hitz idatzi:

.....
.....
.....

11. Sue herrixkan izan ondoren gaztea palaziora bueltatu zenean:

- A. Ministroak gaztea deitu zuen
- B. Gazteak ez zuen Mong ikusi nahi dirua ekarri ez zuelako
- C. Dirua bilatzen ahalegindu zen, ministroa haserretu ez zedin
- D. Inork ere ez zuen jakin palaziora bueltatu zela

12. Zenbat denbora izan zen mutila Sue herrixkan zorra kobratzera joan zenean?

- A. Bost urte
- B. Egun batzuk
- C. Hilabete batzuk
- D. Urtebete ia

13. Nola erantzun zuen Mongek gazteak zorraren dirua ez zuela ekarri jakin zuenean?

- A. Asko haserretu zen, baina gero barkatu zion
- B. Ez zion sinetsi eta gaztea gezurretan ari zela pentsatu zuen
- C. Gazteak eman zizkion arrazoiak ulertu zituen
- D. Berriz joateko agindu zion, zorra kobratzeko

14. Mongek palaziotik ihes egin behar izan zuen eta Sue herrixkara joan zen gaztearekin. Nolako harrera egin zieten orduan? Zergatik?

.....

.....

.....

15. Gazte protagonistaren eta Mong ministroaren bina ezaugarri on idatzi.

Gaztearen 2 ezaugarri onak:
1.
.....
2.
.....

Mong ministroaren 2 ezaugarri onak
1.
.....
2.
.....

2. zatia



Proba hau egiteko 45 minutu dituzu.

Txakurra eta bere isla

Txakur bat erreka baten ertzean paseatzen ari zen, hortz artean haragi pusketa bat zeramala, eta ezustean bere irudia ikusi zuen uretan islatua. Beste txakur bat zelakoan eta hark zeraman haragi pusketa berea baino hobea zelakoan, bestearen haragia harrapatzeko uretara salto egitea erabaki zuen. Baina hori egitean



bere pusketa askatu behar izan zuen eta, ondorioz, jatekorik gabe gelditu zen, irrikatzen zuen pusketa isla bat baino ez zelako eta benetakoa urak eraman zuelako.

Esopo

16. Zer zeraman ahoan uretan islatzen zen txakurrak?

.....

17. Zein zen Esoporen asmoa ipuintxo hau idaztean?

- A. Argiak ez diren txakurren ohiturak azaltzea
- B. Haurrendako ipuin dibertigarria idaztea
- C. Irakurleei zerbait irakastea
- D. Ipuinak idatziz denbora pasatzea

18. Nolakoa zen ipuineko txakurra? Aukera itzazu elezahar honetako pertsonaiaren ezaugarriak ongien azaltzen dituzten bi adjektiboak.

Zuhurra

Pinpirina

Askonahia

Fidela

Gutziatsua




Lore, txori, tximeleta
Udaberrian, udaberrian,
Pinpilinpauxa, lirio,
bioleta...
Udaberrian.

Udaberri, udaberri,
Negu hotzaren alaba
Uda beroaren ama,
Aspaldi jaioa.
Nekatu egin da, nekatu,
Eta orain lotara doa.



Lo hartu du udaberriak
Eta udari utzi dizkio
Eta guri
Bere erregaliak:
Loreak, tximeletak
Eta txori kantariak.

Udaberri, udaberri
Ondo lo egin, muxu,
Eta datorren urtean ere
Etorri, etorri, udaberri!



Joxan Ormazabal

19. Nork hartu du lo?

- A. Udazkenak
- B. Udak
- C. Neguak
- D. Udaberriak

20. Zure ustez, zer esan nahi du “nekatu egin da, nekatu, eta orain lotara doa”?

.....
.....
.....

21. Zergatik deitzen dio olerkariak udaberriari “Uda beroaren ama”?











































- A. Udaberria eta uda urtaroak direlako
- B. Uda oso beroa delako
- C. Udaberria uda baino hotzagoa delako
- D. Udaberria amaitzen denean uda hasten delako

22. Zure ustez, idazleari udaberria gustatzen al zaio?

Eman arrazoi bat zure erantzuna justifikatzeko testuan oinarrituta.

.....
.....
.....

Datozen 6 egunetarako aurreikuspena Nafarroan

	GAUR	BIHAR	ASTEAZK 9	OSTEG 10	OSTIR 11	LARUN 12
Iruña	 Euria: %80 Max: 25 Min: 11	 Euria: %75 Max: 14 Min: 7	 Euria: %5 Max: 20 Min: 6	 Euria: %55 Max: 20 Min: 8	 Euria: %70 Max: 11 Min: 4	 Euria: %45 Max: 11 Min: 4
Altsasu	 Euria: %75 Max: 24 Min: 9	 Euria: %100 Max: 11 Min: 6	 Euria: %5 Max: 19 Min: 5	 Euria: %50 Max: 20 Min: 7	 Euria: %80 Max: 10 Min: 3	 Euria: %55 Max: 10 Min: 2
Elizondo	 Euria: %80 Max: 25 Min: 12	 Euria: %100 Max: 13 Min: 9	 Euria: %5 Max: 19 Min: 7	 Euria: %40 Max: 19 Min: 7	 Euria: %70 Max: 12 Min: 6	 Euria: %60 Max: 11 Min: 4
Lizarra	 Euria: %55 Max: 25 Min: 12	 Euria: %45 Max: 16 Min: 7	 Euria: %20 Max: 20 Min: 5	 Euria: %60 Max: 20 Min: 9	 Euria: %65 Max: 13 Min: 4	 Euria: %40 Max: 12 Min: 4
Zangoza	 Euria: %80 Max: 24 Min: 12	 Euria: %50 Max: 17 Min: 7	 Euria: %15 Max: 20 Min: 5	 Euria: %60 Max: 21 Min: 8	 Euria: %70 Max: 13 Min: 5	 Euria: %30 Max: 12 Min: 4
Tafalla	 Euria: %65 Max: 25 Min: 12	 Euria: %20 Max: 16 Min: 8	 Euria: %5 Max: 20 Min: 6	 Euria: %45 Max: 21 Min: 9	 Euria: %55 Max: 13 Min: 5	 Euria: %25 Max: 13 Min: 4
Tutera	 Euria: %20 Max: 26 Min: 12	 Euria: %15 Max: 19 Min: 11	 Euria: %20 Max: 21 Min: 8	 Euria: %65 Max: 22 Min: 11	 Euria: %60 Max: 16 Min: 7	 Euria: %20 Max: 16 Min: 6

23.Elizondon asteko zer egunetan egin dezake euri gehien?

.....
.....
.....

24.Aurreikuspenaren irudian, koadro batean “GAUR” jartzen du. Asteko zer egun da?

- A. Igandea
- B. Astelehena
- C. Asteartea
- D. Asteazkena

25.Aurreikuspenaren arabera, asteazkenean Nafarroako zer tokitan egingen du hotz handiena?

.....
.....
.....

Angurri gazpatxo

Fresko-freskoa! Horrelakoa da aurkezten dizugun angurri eta tomate gazpatxo.

1. urratsa:

Gazpatxo hau egiteko ongi heldutako tomateak erabiltzeko aholkatzen dizugu. Ez da beharrezkoa tomateak zuritzea.



2. urratsa:

Hurrengo urratsa! Angurria zuritu, kendu azala eta haziak. Intxaur baten tamainako pusketetan zatitu eta pusкета guztiak erabat garbi daudela egiaztatu.



3. urratsa:

Irabiagailuko ontzi batean, tomatea angurriarekin batera birrindu, nahasketa homogeneoa lortu arte. Osagaiak gutxi gorabehera tenperatura berean izatea da ongi nahasteko gakoa.



4. urratsa:

Pikorrik izan ez dezan, iragazki batetik pasatu zure nahasketa guztia.

Aurkezpena:

Bukatzeko, gertatu zure nahasketa besterik gabe gatz pitin bat, piper beltza eta kalitate oneko oliba olio apur bat botaz. Hotzetan gorde mahaira ateratzeko unera arte. Menda edo albaka freskoarekin apaindu.



26. Angurri gazpatxo egiteko zer gauza izan behar dituzu prest?

- 1) Angurria.....
- 2)
- 3)
- 4)
- 5)

27. Irabiatu aurretik, nola prestatu behar duzu angurria?

- A. Mendarekin edo albakarekin nahasiz
- B. Azala kendu gabe zatituz
- C. Zurituz eta pipitak kenduz
- D. Lehenengo tomatea irabiatzen da eta gero angurria

28. Errezetako zer urratsetan behar duzu irabiagailua?

.....

.....

.....

29. Argazia begiratzen baduzu, gazpatxo apaintzen duten hosto berde batzuk ikusiko dituzu. Zer landare mota da?



.....

.....

.....